

**B**

BARREN

TOKIKOM



**Kongon,  
uraren arrastoan**



# konfiantzan IKASTOLA en confianza



aurre-matrikulazioa  
urtarrilaren 30etik  
otsailaren 10era

[www.elgoibarikastola.net](http://www.elgoibarikastola.net) 943 744441 [elgoibar@ikastola.net](mailto:elgoibar@ikastola.net)

Pedro Miguel Urruzuno Kooperatiba



elgoibar **ikastola**

1962-2012



**Aurkezpen bilera irekia: urtarrilaren 30ean, 19:00, IKASTOLAN**



Joanes  
Rodriguez

Munduko jendartearen 1/5, 50.000 milioi dolarreko inbertsioa, 7.000.000 zentsore... Ez da gehiago esan behar. Bada esaldi bat burura etortzen zaidana: "Nahikoa da gizon onak ezer ez egitea, gaizkiak irabazteko..." eta punto. Txina. Asko esan dugu Txinaren inguruan. Txistek egin ditugu,



Maialen  
Arnedo

barre..., baina egia bakarra da: munduko frakzio industrial eraikitzaile nagusi bilakatu dira azkenengo hogei urteotan, eta inork espero ez zuen bilakaera izan dute. Hasieran bagenekien "made in... Vietnan, Taiwan, Indonesia..." ezberdintzen, baina bat-batean, dena Txinan egina bilakatu zen, eta gure herriak jatorri txinatarreko "todo a cien" ezberdinez inbaditu zituzten. Argi dago bertakoak pozik daudela direnaz, eta harro daudela euren kulturaz ere. Gu ere bai, eta hori izan da agian galbidea, edo gutxienez, bide zuzenetik atera gaituena.

### “Munduko frakzio industrial eraikitzaile nagusi bilakatu dira [txinatarrek] azken hogei urteotan”

Argi dago hemen etekin berdinak izaten jarraitu nahi bagenuen beste nonbait ekoiztu behar genuela. Hau horrela, gure gizarteak, erabat industrialia izatetik aldaketa bizian dagoen zerbitzu gizarte izatera igaro da. Jakituriaren garaiaren atarian gaude. Erraza da: diru kopuru bera, baina margen gehiagorekin. Hala ere, honek ez du betirako balioko, eta eurek ere hasi dira konturatzen, komunistak izan arren, badauzkatelako eredu kapitalista ezberdinak: Shangai edo Hong Kong, esate baterako. Nazio-entresa bat dira.

Nahaspilatsua den arren, mezua motza da. Txina ez da perfektua inondik ere: arazo sozialak, askatasun falta, ezjakintasuna, alfabetatu gabe asko..., baina gizartearen kontra joateak ez dauka zentzurik. Lagundu diezaiegun, bilakatu gaitzen jakituriaren gizarte! Otsailaren 15ean ekingo diot bidaiari...

Ikusten dut, Joanes, Txinarako bidaiak zer hausnartu eman dizula. Zure hitzak irakurri eta neu ere buruari bueltak ematen hasi naiz. Egia da, bai, gaur egun kultur aniztasuna areagotzen doala, immigrazioaren kopuruak gora egiten duen heinean. Elgoibarren bertan ikusi dezakegu hori. Nahiz eta kostata aitortu, aurreiritziak sortu ohi zaizkigu gai honi dagokionean, ezezagunak zaizkigun gaiekin gertatzen zaigun moduan. Izan ere, ardurarik ez duen zerbait azkar eta merke erosi nahiko bazenuke nora joango zinake? Ziur nago askok "txinoak" dituztela buruan.

Kultur aniztasunak eztabaida asko eta askotarikoak sortzen ditu, aniztasun, berdintasun, duintasun... eta mila "tasun"-en izenean. Frantzian pil-pilean egon den burkaren erabileraren gaia, kasu.

### “Aniztasunaren aberastasunaz eraikiko duguna Txina bera baino handiagoa izango da”

Baina, betaurreko berdinekin begiratu behar diegu kultura ezberdinei. Geurea sustatu eta besteena errespetatu; horixe da gakoa. Errealitate ezberdinak daudelako daude kultura ezberdinak, eta aniztasunean dago aberastasuna.

Herrien arteko loturak, harremanak, kultur-nahasketak... aberasgarriak direla ez dago zalantzarik; errespetutik eta elkarrekintzatik sortuak badira, harremanak hartu eta emateko baitira, elkarrekin egiteko, eta ekiteko. Hala, zenbait kulturak, zapalduak diren heinean, aldarrikatu eta zabaltzeko behar handiagoa izaten dute, herritarrok zapaldua den horren hedatzeko beharra sentitzen dugu-eta.

Ziur baikaude inposaketa guztien gainetik, geureari eutsiz, geure hizkuntza eta ohiturak transmitituz eta aniztasunaren aberastasunaz eraikiko duguna Txina bera baino handiagoa izango dela. Zure hurrengo eskutitza Txinatik jasoko dudalakoan, bidaiaria on, Joanes!

#### I. URTEURRENA

### FERNANDO AZPIAZU URIBETXEBERRIA

2011ko urtarrilaren 30ean hil zen, 77 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 28, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.





# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

**KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi  
**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil  
**HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia  
**PUBLIZITATEA** Leire Rubio  
**MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz  
**MAKETAREN DISEINUA** Jaione Unanue  
**KOLABORATZAILEAK** Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga  
**INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.800 ale  
**LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




ELGOIBARKO UDALEA



MENDAKO UDALEA



AIRE, AIRE ET SUKIA



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Mintxeta Atletismo taldeari esker onak.

Idatzi honen bitartez, Arnaldo Askatu Herri ekimenak Mintxeta Atletismo taldea nahi dugu eskertu Mugertza Krosean agertutako jarrera eta eskainitako laguntza guztiagatik.

Honekin bat, antolakuntza bikaina ere nahi dugu zoriondu. Pozgarria da ikustea garai hauetan boluntario talde lan izugarriaz erromantizismoz beteriko ekitaldi ezinhobeak antola daitezkeela. Eutsi gogor!

Azkenik esan soberan geratu diren Kontzertu akustikoko DVD urriak Lojantzi eta Iturri tabernetan daudela salgai. Era polita baikoitzak bere neurrian Arnaldoren askatasuna aldarrikatzen jarraitzeko. Azkar ibili agortu baino lehen!

Asko eskertuko genuke zuen laguntza!

**Arnaldo Askatu Herri Plataforma** ☺

### Eskerrik asko

San Anton torneoa antolatzen lagundu dituzten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu Lagunak Elgoibarko pilota eskolaren izenean. Eskerrik asko gure laguntzaile izan zaretenoi, Elgoibarko Kirol Patronatuari, Elgoibarko Udalari eta Udal Txistulari Taldeari, eta eskerrik asko, era berean, gure babesle izan zareten guztioi: Alcorta Brockhaus, Jai alai taberna, Aterpe taberna, Cordon Vilarchao Pinturas, Lanbroa, Txarriduna jatetxea, Biak ilea-paindegia, Muebles Anton, Usatorre taberna, Kaia, Julio Bueno ardoak, Iriondo taberna, Mekatar, Elustondo ardo banaketak, Orbea taberna, Maren taberna, Armueta harategia, Estrulaser tubo, Mugape eta Iraegi errotuloak

**Lagunak pilota eskola** ☺

### 2012ko Juan Mugertza krosaren esker ona

Idatzi honen bidez, Elgoibarko Nazioarteko Juan Mugertza Krosaren LXIX. edizioan, Mintxeta A.T. batzordeak eskerrak eman nahi dizkie nola edo hala euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien eskuzabaltasunari esker, berebiziko arrakasta izan zuen 2012ko urtarrilaren 22an egin zen krosak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzeko orduan emandako laguntzagatik, eta, bestetik, gure herrira krosean parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egin dako harrera bero eta adeitsuagatik.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko herriaren izena, aste betez, mundu osoko kirolaren ikusmiran egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira.

Krosa herriarena da, eta herriak maitatzen jarraituko duela espero dugu. Edizio honetan Euskadiko krosik onena izan gara; eta antolaketari eta kirol arloari dagokionean, estatuko hoberenatarikoa.

Hortaz, lanean jarraituko dugu, datorren urtea ere aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Horrela bada, Mintxetan ikusiko dugu elkar, 2013ko urtarrilean. Mila esker.

**Mintxeta Atletismo Taldea** ☺





**Txalo bero bat Gazte Asanbladari:** "Txalo bero bat eman nahi diogu Elgoibarko Gazte Asanbladari zapatuko kontzertuagatik. Esne Beltza bezalako taldeak Elgoibarren entzuteko aukera edukitzea sekulakoa iruditzen zaigu. Jende asko batu ginen Gaztetxean, eta giro aparta sortu zen musikarien eta ikusleen artean. Eskerrik asko horrelakoak antolatzeagatik, eta jarraitu horrela".

**Txalo bero bat Herri Eskolako ikasleei eta irakasleei, San Sebastian eguneko danborrada antolatzeagatik:** "Urtarrilaren 20an, San Sebastian egunez, danbor hotsak entzun ziren Herri Eskolako patioan, urtero bezala. Etxeko txikiek danborrada bikaina eskaini zuten guraso eta irakasleen aurrean. Antolatzaileei txalo bat eman nahi diegu egindako lanagatik".



Zuen kezak, galderak edo txalok bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) 943 744 112

## ESKERTZA

**FELISA IRIONDO ARRATE**

2012ko urtarrilaren 24an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

**RAFAEL ARRIZABALAGA BERABIDE**

2011ko abenduaren 23an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

**ROGELIO VELA MARTINEZ**

2012ko urtarrilaren 15ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Foru fondoaren zorra hainbat urtetan itzuli ahal izatea eskatu diote zenbait udalek Foru Aldundiari

Elgoibarkoak ez ezik, Donostiakoak (Bildu) edo eta Irungoak (PSE) ere eskatu dute

**G**ipuzkoako hainbat udalerrik eskaera bera egin diote Foru Aldundiari: urtero Aldundiari itzuli behar izaten zaion foru fondoaren zorra urtebetean barik hiru urtean itzultzeko aukera izatea. Elgoibarko Udalez gain, Donostiakoak eta Irungoak ere egin dute eskaera hori.

Egungo krisi ekonomikoak dagoneko nahikoa ito dituela salatu dute hainbat udalek, eta, egoera horretan zorraren %100 itzuli behar izateak oso egoera txarrean uzten dituela.

Alabaina, eta denak ere nahikoa gaizki dauden arren, udalerrri batzuetako egoera are kaxkarrago da. Gure eskualdean, esate baterako, Mutriku eta Soraluez daude egoera larrienean, Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatearen

arabera. Kasu horietan, eta zorraren itzulketaren inguruko baldintzen gainean oraindik ere Aldundiak ezer zehatzik esan ez duen arren, badirudi egoera finantziero txarrean dauden horiei zenbat erraztasun emango dietela. Ez dago horrekin ados Elgoibarko alkatea: "Badaude Udal batzuk interbentzio egoera moduko batean, eta horiei akaso, erraztasunak jarriko dizkiete, baina horrek ez luke horrela izan behar. Ezin dena egin da Udal bati modu batean eskatu zorra eta beste bati beste batean."

Hala ere, Aldundiaren egoera zein den badakiela aitortu du Etxeberriak, eta zentzu horretan, gaia mahai gainean jarri eta aukera guztiak aztertu beharko lirakeela uste du, zuzenean zor



guztia urtebetean itzuli behar dela esan gabe, beste zein aukera egon daitezkeen baloratzeko.

Zenbait herritan aurreikusitako inbertsioak oztopatuko ditu zorra urtebetean itzuli beharrak; Elgoibarren, ordea, aurreikusitako inbertsioak ziurtatuta jarraitzen dutela adierazi du Alfredo Etxeberriak.

## Euskal Herriko Lanbide Heziketa ezagutzeko topaketak egin dituzte IMHn



FPEmpresa Topaketak egin dituzte IMHn atzo eta gaur. Espainiako Lanbide Heziketako 89 ikastetxek sustatutako proiektua dira topaketok, eta arduradunen esanetan, Lanbide Heziketaren esparruan lantzen ari

den "proiektu berritzaile garrantzitsuenetakoa" osatzen dute.

Kasu honetan, Elgoibarren, Usurbilen eta Donostian egin dira topaketak, Euskal Herriko Lanbide Heziketa bere lanean erreferente direlakoan,

eta bertatik bertara hemen egiten ari den lana ezagutzeko.

Lanbide Heziketako ikastetxeen arteko elkarlana bultzatzea helburu duten topaketa batzuk izanda, guztira Espainia osoko 68 ikastetxe batu dira Elgoibarko, Usurbilgo eta Donostiako topaketetan.

### Euskal Herriko Lanbide Heziketa erreferente ona

Krisialditik irten ahal izateko, enpresa eta lanbide heziketako ikastetxeen arteko elkarlana eta ekintza bateratuak sustatzeko gaitasuna beharrezkoak direla uste dute, eta bide hori lantzeko erreferente ona dela Euskal Herriko Lanbide Heziketa. "Hala uste dute FPEmpresako arduradunek, eta gure esperientziak bertatik bertara ezagutzeko antolatutako topaketok", azaldu du IMHk.



## Pertsonaia **Fermin Arrese**



Fermin Arrese omendu dute Mugertza Krosaren antolatzaileek. 82 urte ditu Arresek, eta 63 urte eman ditu Mugertza krosari lotuta, hain justu ere krosak nazioarteko izaera hartu zuenetik hona (Krosak berak 69 urte bete ditu aurten). 1948. urtean sartu zen antolakuntza taldean, Jose Gurrutzagarekin batera. Ordura arte krosaren arduradun nagusi izan zen Casto Iraegi eta haren taldearen erreleboa hartu zuten, eta eurek biak aritu ziren hainbat urtez. Azkeneko urteetan azkeneko buelta iragartzen duen kanpaikada jotzeko ardura eta ohorea izan du Arresek.

## Zenbakia **15.000**

15.000-20.000 lagun inguruk ikusi dute aurten Elgoibarko jaiotza mekanikoa, antolatzaileen arabera. Abenduaren 27an piztu zuen Julen Zabala margolari elgoibartarrak, eta urtarrilaren 17an itxi zuten, San Anton egunez. Iaz baino bisita gehiago izan dituzte aurten, eta joera hori izan da azkeneko urteotan. Horrexegatik gustura agertu dira antolatzaileak. Haien esanetan, jai egunetan eta asteburuetan, bereziki, jende ugari etorri da inguruko herrietatik jaiotza mekanikoa ikustera. Datorren urteari begira, ideia berrien bat duen orori eurekin harremanetan jartzeko eskatu die Elgojaiotza taldeak, gauza berriak sortzea gero eta zailagoa egiten zaiela-eta.

## Irudia **Pintxo-poteoa**

Elgoibarko Ostalarien Elkarteak pintxo-poteoa antolatu zuen eguazten eta eguenerako. 1,5 eurotan pintxoa eta sagardo tragoska bat hartzeko aukera izan zuten hala nahi izan zutenek Elgoibarko Ostalarien Elkarteko bazkide diren 23 tabernatan. Taberna bakoitzak bere pintxoa prestatu zuen. Hori bai, pintxo guztiek sagardotegi giroarekin lotura zuten.



## **ETB3ko Lokaleroak saiokoak protagonista bila ari dira**

Lokaletan biltzen diren gazteen bila ari dira ETB3ko Lokaleroak saiokoak. Gazteek euren aisialdia non eta nola igarotzen duten erakusten dute saio horretan, eta baita gazteen lokalen inguruko tokian tokiko araudien berri eman ere. Saio horretan agertu nahi izanez gero emailaz jarri zaitezke harremanetan saio arduradunekin: [lokaleroak@eitb.com](mailto:lokaleroak@eitb.com). E-postan lokalean zenbat zareten, zein adinetakoak zareten eta nongoak zareten zehaztu behar duzue.

## **Emakumeen lidergoa sendotzeko ikastaroa Elgoibarren**

*Adimen emozionala, genero ikuspegitik* izenburuko ikastaroa antolatu du Debegeesak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Elgoibarko Udalarekin elkarlanean. Politika, enpresa eta gizarte arloan erantzukizun postuetan diharduten emakumei zuzenduta dago ikastaroa, eta hiru saio egingo dira. Lehenengo saioa otsailaren 1ean izango da, eta ondorengoak hilaren 8an eta 15ean. Hiru saioak 18:00etatik 20:00etara izango dira, Elgoibarko Kultur Etxean. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute [ealonso@debege-sa.com](mailto:ealonso@debege-sa.com) helbidera idatziz edo 943 820 110 telefonora deituz (Elena Alonso).

## **Mendebaldeko Sahararen aldeko elkartasun karabana**

Azkeneko astean sartu da Sahararen aldeko janari bilketa kanpaina. Elgoibarren batzen den janari guzti hori Tindufen dauden errefuxiatuen kanpamenduetara bidaliko dute gero Eibar-Sahara Elkarteko ki-deek. Lekaleak, olioak, azukreak, pasta, eta kontserbak behar dituzte, eta baita konpresak ere. Herriko ikastetxeetan eta Dia, Eroski eta Netto supermerkatuetan jarri dituzte produktu guzti horiek jasotzeko guneak.

# kili barren

## AGUSTIN LAZAROBASTER



Ilusioz eta lanerako gogoz betetako motxila bizkarrean hartuta abiatu zen Agustin Lazarobaster iaz Kongora, Tomas Madinabeitia abadearen eskutik. Erretiroa hartu berri, lanean igaro zituen han bi hilabete: abuztua eta iraila. Zer topatuko zuen susmoa bazuen, baina muturreko pobrezia bere begiz ikusi zuen han. “Ezer ez dago han”, dio behin eta berriro. Horrek ez dio, hala ere, berriro bueltatzeko gogoia kendu. “Sano banaiz, bueltatuko naiz”, argitu du.

Ainhoa Andonegi

## “Ezer ez dute han, eta edozein huskeria obra handia da”

Bitxia ere bada zure kasua. Erretiroa hartu eta ezer ez dagoen herrialde batera joatea erabaki duzu. Zertara, eta lanera. Nolatan? Zerbaitetan laguntzea banuela pentsatuta joan nintzen Kongora. Maria Eugenia Kortabarría elgoibartarrak hara egin zuen bidaiaren

berri izan nuenean hasi nintzen buruari bueltak. Antzuolako koadrila batek hango herrixketara ura eramateko lanetan jardun zuela irakurri nuen, eta ‘horixe da nire lana’ pentsatu nuen. Hango jendeari erremintak erabiltzen erakutsi eta haiei zer edo zertan la-

guntzea. Izan ere, orain erretiroa hartuta naugoen arren, bizi guztian ibili naiz ni hidraulika kontutan. Mekanikoa izan naiz ogibidez, eta beti ibili naiz saltsan: elizako kanpaiak martxan jarri, gabonetako belenak... Halaxe, Tomas Madinabeitiarekin berba egin eta iraila





an zuzenean lanera joan beharrean, abuztuan joatea erabaki genuen, hango presak ikusi eta aurrez zer egin zitekeen ikustera. Uztailean ehun urte bete dituen Kansenia misioaren barruan ulertu behar da gure bidaia.

### **Zein izan da han zure egitekoa?**

laz amaitu gabe laga zituzten lanak bukatzea eta aurrera begira zer egin zitekeen azterzea. Zortzi bat kilometroan ekarri zuten ura Kapirira, gu egon garen herrira, eta ura kanalizatzeko lan haiei heldu genien guk gero. Munduan bazter dago Kapiri; ezer ez dago han. Ez astorik, ez zaldirik, ez behirik... atxurak bakarrik dituzte gizagaixo haiek, eta eurak Tomasek [Madinabeitiak] eramandakoak. 50.000 atxur baino gehiago eraman dituzte, eta horixe eskatzen dute oraindik ere: atxurra, hemen jogurtak bezala. Antzuolarrek hasitako lana ikusi, eta iturriak egiteari ekin genion guk. Sei egin genituen, eta oparizat arropak garbitzeko labadero bat ere eraiki genuen.

### **Elgoibartik makinak ere bidali dira hara, ezta?**

Bai. Getxoko 72 urteko abade bat dago han, eta hara joan behar gara orain. Erreminta makinako eta automozioako hiru eskola erakitzen ari da, eta orain arotzeriako beste eskola bat zabaldu nahi du, hemendik eramandako trasteekin. Han dituzten makina gehienak Elgoibartik eramandakoak dira, bai; hemen atzera gelditutako makinak.

### **Zer topatu duzu Kapirin?**

Orain hamar urte eraman zuten ura Khanse-niara eta orain Kapirira. Han ez dago ezer. Zulo bat badute zortzi metroan behera, eta korrea moduko batekin ateratzen dute ura, sokarik ere ez dutelako potea altxatzeko. Sukaldean ere ikatzarekin jardun behar izaten da, eta pentsatuizuri guri goizeko lauretarako gosaria jartzen ziguna noiz jaiki behar izaten zen, txingarra egiteko. Eguna zabaltzerako jendea prest izaten genuen lanerako; guk zer agindu, huraxe egiten zuten han. Jaungoikoa beste ginen gu han! Eguerdira arte lanean jarduten genuen, eta gero bazkaldu, siesta-txoa egin, hurrengo egune

## **“Esker onekoak dira kapiriarrak. Ezer ez dute, eta dena dute emateko”**

koak prestatu eta 21:00etarako ohera. Hori bai, generadore txiki bat bazuten misiolarien etxean, eta pizten zenean telebista ere ikusten genuen tarteka. Hantxe ikusi nuen nik aita santua Madrilén hara eta hona.

### **Zenbat denbora egin duzu han?**

Bi hilabete: abuztua eta iraila, eta hango ezereza ikustea gogorra egin zait. Khanse-niatik kilometro ingurura dago ospital moduko bat, eta han ere irailan ur gabe gelditzen dira, sei hilabetez ez duelako tantarik ere egiten. Pentsatuizuri zer egongo den han! Hori konpontzeko lau proiektu diseinatu ditut, eta hurrengo lau urterako lana ipini. Sei kilometroan zanga bat egin behar dute atxurrean, ura ekarri ahal izateko, eta zelan egin erakusten jardun dugu guk. Gu egon garen lekuan, berriz, Kapirin, ura egon badago, herritik zortzi bat kilometrorra, baina ekarri egin behar da, kanalizatu. Kapiriko ur sobrantea Mutobora eraman behar dugu orain. Dagoen ura aprobetxatzeko bidea jartzea da gure lana.

### **Nolakoak dira khanseniarak?**

Oso esker onekoak dira. Ezer ez dute, eta dena dute emateko. Frantsesez hitz egiten dute han, eta gero badute guk hemen eus

kara dugun moduan, beste hizkuntza bat, eurena. Nik euskaraz egiten nien askotan, euskaraz egin edo erdaraz egin igual-igual delako han. Lanerako eta elkar ulertzeko intentzioa dagoen lekuan hizkuntza ez da inoiz traba izaten. Bizkarretik heldu, suabe-suabe azaldu gauzak, eta erraz ulertzen genuen elkar.

### **Nola egiten zenuten materiala eta gauzak alde batetik bestera eramateko?**

Hiri ondoan seminario antzeko bat dago, eta han astebete pasa egin genuen, makinak-eta kargatzeko. Hantxe gordetzen dugu materiala. Gero handik zazpi tona kargatu kamioi zahar batean eta herrira; bi egun bidaian, gau eta egun. Dena kostatzen da han asko, eta ahal den moduan ibili behar! Edozein huskeria obra handia da han. Gasolina-hornigailua ere hamabi ordu-ra dago.

### **Muturreko pobrezian bizi direla diozu, baina gabezia handi horren barruan, zer da falta gehien egiten diena?**

Ezer ez dute han, neska! Baina zerbait falta badute ura da. Ur gabe bizi ere ezin da egin-eta. Buruan pitxar moduko bat hartu eta lau-bost kilometroan joaten dira han andreak ur bila, egunero-egunero. Arropak garbitzeko ere palankana bat buruan hartu eta beste bat eskuan, eta segi ura dagoen tokiraino. Ura eramateko hodiak doazen ondoan, baina, sua egiten dute, gariaren antzeko belar bat erreaz han ezkututzen diren sugetzarrak hil eta ingurua garbitzeko, eta, jakina, tuboak erretzen dituzte. Hori konpontzeko, tuboei galbanizatu bat eman diegu zubi inguruetan. Arketak konpontzen ere jardun genuen, aurreko urtean erdiska lagatako lanak amaitzen-eta.



### **Ezer ez dagoen lekuan, nondik ateratzen zenituzten erremintak eta materiala?**

Materialik ez dago bat ere han. Iaz erabili gabe gelditu zen apurren bat, baina gauza gutxi. Behin gogoratzen naiz eskola batean giltzarrapoak jarri behar zirela esanez etorri zitzaizkigula eta txaparik ez genuela horretarako. Erremintak bagenituen, baina materialik ez. Hala, orain 40 bat urte desmuntatutako traktoreren bat, eta haraxe joan ginen, zerbaiten bila. Bentiladore zahar baten zati bat topatu nuen han, eta haretxekin egin genituen giltzarrapoak. Burua asko nekatu behar da han, zerbait egingo bada!

### **Nola hartu zintuzteten hangoek?**

Lehenengo begira-begira gelditzen ziren, ikasten. Sekulako gogoia dute gauzak egiteko, eta guk, erremintak erabiltzen erakutsi ostean, lanean jartzen genituen. Eurek ikasi behar dutelako moldatzen, kanpoko laguntzarik ez dutenerako. Batzuetan ernegatzeko arriskua ere egoten zen, hango lan egiteko moduak ez daukalako hemengoaren antz handirik, baina lasai hartu eta aurrera.

### **Zerk harritu zaitu gehien?**

Ez dakit ba. Dena da ezberdina han. Hango jendearen umorea... umore oneko daude beti, eta hori ezer ez dutela! Umeak ere gustura ibiltzen dira jolasean eta abarrean, baina pobrezia itzela dago han; penagarria da. Hango etxeetan sartzea pentsatu ere ez behintzat! Han jaio dira, eta besterik ezagutzen ez dutenez ohitu egin dira hango bizimodura. Tristeia da hango egoera. Jairo Berbelek *Imbarreen paradisua* jarri

zion izena bere dokumentalari, baina lekutan dago paradisua han! Hori bai, borondatea... borondate handikoak dira. Eta lapurrak ere hemengo aldean gutxi han! Kapirin, esate baterako, ez dago lapurren beldurrik. Guk zenbat erreminta erabili ditugun han, eta sekula ez zaigu ezer falta izan. Geuk lagatako lekuan egoten ziren traste denak.

### **Jatekoarekin-eta zelan moldatu zara?**

Ondo, ondo. Barrurako hemengoia baino hobea da. Kiloak kendu eta izardirik bota gabe ibili ginen han. Bukaria jaten dute han. Taloak egiteko egiten den bolaren antzeko bat egiten dute hango artoarekin eta huraxe jan! Arto bola hori eskuan hartu eta haretxekin jaten dute arroza. Monkoio izeneko edari bat ere egiten dute. Tipiko-tipikoa esaten dena. Arbola sustarrekin eta kalabaza azalarekin egiten dute. 200 litroko bidoietan edukitzen dute egosten, egunetan, eta fermentatzean han irtetzen da bitsa eta abarra! Nik neuk ez dut nahi, baina hangoek gustura hartzen dute. Alkohola ere badauka, gainera, eta haura edanda han ibiltzen dira gero dantzari!

### **Gogorrena zer egin zaizu?**

Lehenengo eta behin, bidaia. Dena da gogorra, baina gabezia guztiekin ere, biziko nintzateke ni han, Kabirin, haiei lagunduz. Khansenian, ordea, ez. Han delinkuentzia handia dago. Zer galdurik ez dute, eta jakina, edozertarako prest daude. Hori bai, Moskitoen kontua... Malaria harrapatzeko arrisku handia dago han, eta horretxi nion nik beldurra. Gurekin ibili den batek harrapatu du, eta hori han bertakoa zela! Umeak nola bizi diren ikustea ere gogorra da. Abandonatutako umeak ere badaude han. Hango abade ba-

tek lau ditu hartuta, eta badakit iaz Elgoibarko batzuek ona ekarri nahi izan zutela haietako bat, baina ezin, ordea. Gurasoek laga egiten dituzte umetan, eta lanerako beste hazten direnean joaten dira gero haien bila. Lege hori ez dut nik ulertzen, baina halaxe da han.

### **Zertaz bizi dira han?**

Jakizu! Neguan hil ere egiten ei da jendea gosez. Isolatuta gel-

ditzen dira neguan. Bestela ere isolatuta daude, ba ateraizu kontuak nola biziko diren neguan! Gogorra da hango bizimodua. Hemengo jende askok han zer dagoen ikusiko balu...

### **Zelako esperientzia izan da zuretzat?**

Oso ona, oso aberasgarria. Hango klimak, gainera, mesede eta dena egin dit, eta osasunez ere hemen baino hobeto ibili naiz. Neu ere ikaratuta gelditu naiz barren! Bistan dago hemengo erraztasunik ez dagoela, baina nora nindoan banekien, eta gustura ibili naiz. Egindako lanarekin ere gustura etorri naiz. Egin asmo genituenak baino gehiago egin dugu, eta gustura etxera. Ura kanalizatzeko lanak egin ditugu, iturriak ere bai, eskolako ate eta leihoak konpondu, ospitaleko motor zaharra konpondu...denetarik egin dugu han. Aurrera begira, eguzki panelak jartzea pentsatuta daukagu.

### **Berriro joateko asmorik bai?**

Joan nahiko nuke, bai. Osasunez ondo egon beharra dago, baina, hara joateko. Dentistarenean hasitako lanak amaitu, eta azkeneko hiru urtean daukadan hernia txiki hau kendutakoan [abenduan zioten kentzekoa] prest nago ni berriro joateko. Hori bai, gu hara joan aurretik harako diseinatutako proiektuak onartu behar dituzte hemen, Zaragozan, dirua lortuko bada behintzat. Tomas [Madina-beitia] hor dabil atzera eta aurrera, nondik dirua batuko. Seme-alabak ere hazita dauzkate, eta sano bagaude behintzat joan nahiko nuke datorren urtean ere. Hara joateko, gainera, zaindu ere gehiago ere egiten naiz, eta neuretzako mesede! Hori bai, hurrengo joaten naizenean kontu handiagoz ibiliko naiz telefonoz deitzeko orduan. Minutua lau euro kostatzen da handik hona deitzea.



ESKERTZA

## EUGENIO ASTIGARRAGA AROZENA

*"Amesti"*



*Amestiko zelaietan,  
Larraskandako magaletan,  
Almenaran bizikletan,  
Karakate ametsetan,  
Etxeko balkoitik agurretan, ...  
Indartsu gogoratuko zaitxugu, aitxitxa,  
gure bihotzetan.  
Gero arte "Sozio".*

*Zure bilobak eta birbiloba.*

*2012ko urtarrilaren 21ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



ESKERTZA

## JOAQUIN ARANA BASTIDA



*Laster arte ezpainetan  
utzi gaituzu penentan  
orain gure ametsetan  
bizirik zaude benetan  
zeruko izarretan  
eta gure bihotzetan*

*2012ko urtarrilaren 21ean hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



ESKERTZA

## MARI CARMEN GABILONDO ECHAVE



*Herritik hirira eta  
berriro herrira,  
bizitzaren ildoa  
blai ongarritu duzu,  
ikusi besterik ez dago:  
ugari, zabal, aberats  
betirako zure uzta.*

*2012ko urtarrilaren 19an hil zen, Gurutzeta-Barakaldon. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





# TANUI ETA WUDE NAGUSITU ZIREN MUGERTZA KROSEAN

Paul Tanui krosetako munduko egungo txapeldunordeak irabazi du aurtengo Juan Mugertza kroseta gizonetakoetan. Kenyarrak helmugako marran bertan hartu zion aurrea Geoffrey Kipsang junior mailako munduko txapeldunari, eta hortxe amaitu zen bien arteko lehia. Leonard Komonek laugarrenez irabazi nahi zuen Elgoibarren, baina korrikalari afrikarra ez da etorri aurreko urteetan bezain osasuntsu, eta seigarren lekuan amaitu zuen proba. Emakumezkoen lasterketan, bestalde, Yimer Wude Ayalew etiopiarra izan da azkarrena. Etiopiarren eta kenyarren arteko lehia aurreikusten zen emakumezkoetan, baina etiopiarrek, Ayalew ahizpek, hain justu, nagusitasun osoz hartu zituzten mendean Pauline Korikwiang eta Peiscah Jepleting kenyarrak. Eguraldia heze eta hotz egon zen arren, ikusleek ez zuten hutsik egin, 3.500 ikusle batu ziren Mintxetan. Sailkapenak eta argazkiak ikusteko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)

Fermin Arrese omendu dute aurten, azken 63 urteetan krosaren alde egin duen lanagatik. Iñaki Almandoz Kutxako ordezkaria ere omendu dute.



Hasieratik aurre-aurrean ibili ziren korrikalari afrikarrak.



Mintxeta taldeko gaztetxo atletismoko izar handiei.




Etiopiako Ayalew ahizpak, Wude eta Hiwot gailendu ziren emakumezkoen lasterketa nagusian.



Tanui eta Kipsang kenyarrek emozioz beteriko lehia izan zuten lasterketa osoan zehar.

Mintxetako harmailak jera...







Emakumezko gazteetan ere lehia bizia izan zen korrikalarien artean

Gazteen lasterketa ere emozioz beterikoa izan zen.

autografoak eskatu zizkieten



Atletak, ahalegin betean.



Korrikalariak indarrez gainezka lasterketa hasieran.

ez gainezka egon ziren.



Lasterketako faboritoak harrera ekitaldian, pozik.



Ikusleek gogotik animatu zituzten korrikalariak.





Euriaren eraginez lokaztutako ibilbidean egin zuten korrika.



Korrikalari afrikarren atzetik joan ziren gainerakoak uneoro.



Tanui izan zen helmugan azkarrena.



Mendaroko Bizi Poza txarangak girotu zuen eguna.

Gurutze Gorrikoek ere izan zuten lana.



Mintxeta atletismo taldekoek ere maila ona eman zuten.



Pauline Korikwiang kenyarra sailkatu zen 3.postuan.



# Andreu eta Irureta bikoteak irabazi du San Anton pilota txapelketa

Promesetan Arrieta eta Rezusta nagusitu ziren

Joan zen barixakuan jokatu zituzten San Anton pilota txapelketako finalak. Ilkastolako frontoian, eta aurten, Andreu eta Irureta nagusitu dira. Azkoitiko aurrelariak eta Beasaingo atzelariak 22-14 hartu zituzten menpean Yoldi eta Diez. Uneoro aurretik joan ziren markagailuan, eta alde hori handitu egin zen Andreu eta Yoldiren arteko kolpe baten ondorioz Yoldi min hartuta geratu zenean. Promesetan, bestalde, Arrieta-Rezusta bikoteak 22-18 irabazi zien Etxaniz eta Aizpururi. Aurten, Elgoibarko pilotaririk gabe jokatu da San



Anton txapelketako finala, Arribillagak eta Lizarralde ez zutelako lortu finalurrekoe-tan aurrera egitea.

## Zumarragatik Elgoibarrera mendiz mendi

Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta, Zumarragatik Elgoibarrera mendiz etortzeko ibilaldia egingo da bihar, hilak 28. Autobusez joango dira mendizaleak Zumarragara arte, eta handik, oinez itzuliko dira herrira. Zumarragatik Irimo mendia igoko dute, eta Elosutik pasatu ostean, Irukurutzetara iritsiko dira. Handik Karakatera abiatuko dira, eta azkenik, Elgoibarrera jaitsiko dira. Antolatzaileek bost edo sei orduko ibilaldia izango dela aurreikusitu dute, eta bidean mokadutxoak egiteko jana eramateko gomendioa egin dute. 8:20an hartuko dute autobusa King-Kong autobus geltokian, eta Azkoitin autobusa hartuko dute 9:05ean, Zumarragara joateko.

## Egoitz Morak Lormont judo txapelketa irabazi du

Egoitz Morak Frantziako Lormont judo txapelketa irabazi zuen domekan. Usurbil judo taldearekin jokatu zuen judoka elgoibartarrak, ehun kilotik beherakoan sailean. Lau borrokaldi jokatu zituen Morak, eta guztiak oso gogorak izan zirela aitortu du. Finala ere zaila izan zela adierazi du elgoibartarrak. Etengabe erasoan jardun zuen, eta bere arerioak, aldiz, "defendatu baka-rik" egin zuen. Kolpe on bat eman ziola azaldu du Morak, baina epaileak baliogabetu egin zuen, kantxa kanpoan izan zela argudiatuz. Dena dela, garaipenarekin itzuli zen.

## Wing-Tsun kirolari buruzko ate irekiak, otsailaren 4an

Wing-Tsun kirolari buruzko ate irekien eguna antolatu du Wing-Tsun Eskolak otsailaren 4rako, arte martzial hori ezagutzera emateko. 9:00etatik 13:00ak aldera arte Wing-Tsun kirolari buruzko xehetasunak emango dituzte kiroldegian. Herritarrek kirola ezagutzearaz gain, praktikatzeko aukera ere izango dute. Era berean, gogorarazi nahi dute wing-tsun ikastaroak martxan daudela eta nahi duenak izena emateko aukera duela Olaizaga kiroldegian. Has-teko, bi edo hiru saio doan jaso daitezke.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 0 – Zalla 0 (3. maila)  
Real Union 4 – Elgoibar 0 (Ohorezko erreg.)  
Tolosa 0 – Elgoibar 2 (Ohorezko jub.)  
Elgoibar 5 – Lazkao 4 (Kad. A)  
Hondarribia 5 – Elgoibar 3 (Ohorezko inf.)  
Martutene 4 – Elgoibar 5 (Inf. Txiki)  
Elgoibar 3 – Anaitasuna 2 (Neskak)

### ESKU PILOTA

#### San Anton Txapelketa

Arrieta-Rezusta 22 – Etxaniz-Aizpururi 17 (Pro.)  
Andreu-Irureta 22 – Yoldi-Diez 14 (Nag.)

#### Udaberri Txapelketa

Lagunak 22 – Eskoriatza 17 (1. mailako nag.)  
Lagunak 18 – Eibar 22 (1. mailako nag.)  
Gazteleku 22 – Lagunak 16 (1. mailako jub.)  
Aurrera Saiaz 22 – Lagunak 18 (2. mailako kad.)  
**Pala**  
Goierri 16 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)  
Lagunak 25 – Alde Zaharra 17 (2. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

Peneseque 8 – Concepto Egile Elg. 0 (2B maila)  
King Kong 10 – San Patricio 2 (Jub.)

### ESKUBALDIA

Deusto 24 – Alcorta Elg. 30 (Sen. mut.)  
Beristain Elg. 15 – Eibar 31 (Jub. mut.)  
Hondarribi 25 – Grupo Eibar Elg. 33 (Kad. mut.)  
IMH Elg. 28 – Errotaberri 16 (Kad. neska)  
Ikus Elg. 31 – Aloña Mendi 0 (Inf. neska)  
Aterpe Elg. 8 – Aloña Mendi A 16 (Inf. neska)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

**Domeka, 29**  
12:00 King-Kong – Zarautz (Jub.)

### FUTBOLA (Mintxetan)

**Zapatua, 28**  
12:30 Elgoibar – Urola (Kad. B)  
16:30 Elgoibar – Tolosa (Erreg.)  
**Domeka, 29**  
12:00 Elgoibar – Sanse (Inf. Txiki)  
16:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Jub.)

### ESKUBALDIA (Kiroldegian)

**Zapatua, 28**  
18:00 Alcorta Elg. – La Bacaladera (Sen. mut.)  
**Domeka, 29**  
9:30 Sanlo Elg. – Kanpotarrak (Ale. mut.)  
10:45 Sanlo B Elg. – Aloña Mendi (Ale. neska)

### ESKU PILOTA

#### Barixakua, 27, Udaberri Torneoa

21:15 Lagunak – Hernani (2. mailako kad.)  
22:00 Lagunak – Añorga (1. mailako jub.)  
22:45 Lagunak – Intxurre (1. mailako jub.)

## Santa eskean irtengo dira Ikastolako umeak datorren barixakuan

Regina Arrieta irakaslea erretiratu osteko lehen santa eske kalejira izango da

**S**anta eske bezperan ohitura den moduan, kopa kantari irten ohi dira urtero Ikastolako ikasle eta irakasleak. Aurten zapatuan egokitu da Santa Ageda bezpera, baina hala ere, Ikastolaren 50. urteurrena izanik, kantura barixakuan irtetea erabaki dute arduradunek, urteroko ekintzak bete nahian. Herri Eskolan ere ospatuko dute eguna eskolan bertan kopa kantari jardunaz.

### Ohiturak aginduta

Urterokoa izango da kalejiraren ibilbidea. Ikastolan hasi eta plazaraino, Madala, King-Kong, Kultur Etxe pareta eta Errosario kalea igaroko ditu kalejirak. Errosario kaleko Ama Birjinari Salbea abestu ostean iritsiko dira plazara kopa kantariak.

Alabaina, aurtengoak badu berritasun bat. Urte mordo batean ikastolako musika irakasle eta euskal kulturaren sustatzaile izan den Regina Arrieta irakaslearen gidaritzatza faltako zaie-eta ikasleei. Hurrengoek ere lana ondo bete arren, horrelako egun batean nahitaez igarriko den falta izango da Reginarena.

### Olinpiadak bihar

50. urteurrenaren ospakizunen baitan, Lehen Hezkuntzako ikastolako umeak olinpiadak egingo dituzte bihar. Goizeko 10:00etan hasiko dira olinpiadak ikastolan.



A promotional poster for 'ZINEA' (The Cinema) featuring the film 'BESTELAKO'. The poster has a black and yellow color scheme. On the left, there is a vertical black bar with the 'elgoibar' logo and other text. The main text on the right reads 'BESTELAKO' in large, bold, black letters, followed by 'ostegunetan 21:30ean herriko antzokian' in white. Below that, 'ZINEA' is written in large, bold, black letters, and at the bottom, 'otsaila martxoa apirila maiatza' is written in white. There are also small logos at the top left and bottom left of the poster.



# 'Gaztetxia Sol klabian' izeneko musika klasikoko zikloa antolatu du Gazte Asanbladak urte osorako

Hiru hilabete behin musika klasikoko kontzertu bat eskaini nahi dute

**M**usika klasikoa gazteei ez ezik gainerako elgoibartar guztiei ere gerturatu nahi die Gazte Asanbladak, eta horretarako antolatu du datorren astean abiatuko den *Gaztetxia Sol klabian* izenburuko musika zikloa. Musikeneko lau ikasleek osatutako Adsax saxofoi taldeak emango dio hasiera zikloari, datorren egunean, otsailaren 2an, 20:00etan Gaztetxean emango duten kontzertuarekin. Horren ostean, hiru hilabete behin antolatuko du Gazte Asanbladak musika klasikoko kontzertu bat.

Hona hemen kontzertuko programa: 1-Concerto Grosso op 6 n°8 (per la notte di Natale) - A.Corelli. 2-Le Bal - Thierry Escaich. 3-String Quartet op 96 n°12 "American" - A.Dvorak. 4-Gamma 415 - Gerard Gastinel. 5-Violentango - A.Piazzolla.

## Arrakasta joan den zapatuan

Esne Beltza sound sistem taldeak kontzertu eskaini zuen joan zen zapatuan Gaztetxean, eta 300 lagun baino gehiago bildu zituzten Xabier Solanok eta Esne Beltzako DJak. Elgoibartik kanporako jende ugari erakarri zuen kontzertu honek Elgoibarrera.



## Astehenean zabalduko da ikastetxeetan 2012-2013 ikasturterako izena emateko epea

Astehenean zabalduko da ikastetxeetan datorren ikasturterako matrikulatzeko epea, eta otsailaren 10a bitartean egongo da izena emateko aukera. Tarte horretan, interesatuek nahi beste informazio jasotzeko aukera izango dute hezkuntza zentro bakoitzean. Izan ere, bilerak eta ate irekiak antolatu dituzte guztietan.

Otsailaren 4an, Txandakako Ingeniaritzari buruzkoen berri izateko aukera ere eskainiko du IMHk. Goizeko hamaiketan aurkezpen bat egingo dute, ikasketen nondik norakoak azaltzeko.

Ikastolan eta institutuan ere informazio bilerak antolatu dituzte. Datorren 30ean, astelehenean, izango da lehenengoa, ikastolan, 19:00etan, eta otsailaren 2an, egunean, izango da institutukoa, 18:30ean.

## Ate irekiak Herri Eskolan

Herri Eskolak, esate baterako, ate irekien eguna ospatuko du datorren otsailaren 4an. Zapatua izanik, 11:00etan hasi eta egun osoko egitaraua prestatu dute.

Tartean, 11:15ean, *Gure seme alaben heziketa gizartera begira* izeneko hitzaldia eskainiko dute eskolan. Ez da hor bukatuko, baina, egun horretarako prestatu duten egitaraua. Hitzaldiaren ostean, erromeria, bazkaria eta pailazoaren ikuskizun bat izango dira, besteak beste, eta izango da beraz non gozatua.

## Interneteko ikastaroa

Interneten aritzeko oinarrizko ikastaroa hasiko dute datorren eguaztenean KZgunean. Otsailaren 1ean hasi eta otsailaren 14an amaituko da ikastaroa. Goizetan, 9:00etatik 11:00etara, eta arratsaldetan, 16:00etatik 18:00etara. Parte hartzeko otsailaren 1a baino lehen eman behar da izena, KZgunean.

## Ongarriren zinema martxan

Atzo hasi ziren Ongarri zine klubaren egunen saioak, *La piel que habito* filmearekin. Atzo hasi eta maiztera bitartean eguenero eskainiko dute pelikula Ongarrikoek. Aurtun, hori bai, prezioa apur bat garestitu egin dute, eta aurrerantzean bost euro balioko ditu sarrerak. Datorren astean eskainiko duten filmak, Asghar Farhadren *Nader y Simin, una separación* filmeak hain zuzen ere, Urrezko Globoak jaso zuen iaz ingelesezkoak ez diren filmeen kategorian.

herritik kanpo



## iñaki iglesias

**Ameriketako Estatu Batuak, Delaware, Newark. Azken hori da Iñaki Iglesias elgoibartarraren azken bi urte eta erdiko bizilekua. Ikasketek eraman zuten Ameriketara, baina dagoeneko beste gauza askok ere lotzen dute hara. Herri bat ezagutu du, ikasketa modu bat, lagunak, leku berriak... Bi hilabete baino ez zaizkio geratzen bueltatzeko. Azken egunak aprobetxatzen dihardu.**

# “Ez nuen espero hain kultur panorama aberatsa eta anitza topatzea Estatu Batuetan”

### Zer dela eta Delaware?

Donostiako Tecnun unibertsitatean telekomunikazio ikasketak bukatu ondoren, La Caixak bi urteko beka bat eman zidan Estatu Batuetara ikastera joateko. Donostiako irakasle baten bidez Delawareko Unibertsitatean dagoen irakasle nafar baten kontaktua lortu nuen, eta graduondoko ikasketak hasteko onartu ninduen. Sekulako aukera izan da niretzat.

### Delaware Estatu Batuetako estatu bat da, baina zu non bizi zara zehazki?

Delaware oso estatu txikia da, baina kokapen ezinhobea du. Nire herriak Newark du izena, eta Philadelphiatik 30 minutura dago kotzez, Washington D.C.-tik ordu eta erdira, eta New Yorketik bi ordu eta erdira. Egunpasa edo asteburu pasa joateko plan paregabera.

### Nolakoa da leku hori?

Newark herri unibertsitarioa da. 30.000 biztanletik 20.000 ikasleak dira. Ia-ia esan daiteke unibertsitatea dela herriaren jabea. Kale nagusiak, campusak eta ikasleen egoitzak daude herriaren erdigunean.

### Eta non bizi zara zu?

Beraien etxeko gelak alokatzen dituzten aitona-amonak amerikano zoragarri batzuekin bizi naiz ni: Bob eta Maryrekin alegia. Fox News ikusten eta Obamaren kontra hitz egiten pasatzen dute egun osoa.

### Zenbat denbora daramazu hor? Zertan diharduzu?

Bi urte eta erdiren ondoren, masterra bukatzeaz nago. Oso gai interesgarria proposatu zidaten hemen. Sakelako telefonoek elkarrekin komunikatzerakoan kodigoak erabiltzen dituzte mezua zaratatik babesteko, eta kodigo horiek hobetzeko diseinu berriak bilatzen aritu naiz nire zuzendariaren laguntzarekin. Jende asko ari da arlo hau ikertzen, eta etorkizunean gero eta garrantzia handiagoa izango du dudarik gabe.

### Zer desberdintasun nabari dituzu hemengo eta horko egunerokotasunaren artean?


Hemen kotxearekiko menpekotasuna izugarria da. Erosketak egiteko, zinemara joateko, lagun baten etxera joateko... Kotxerik gabe galduta zaude. Gainera, garraio publikoa jende pobreak besterik ez du erabiltzen. Kontraste handiko herrialdea dira Estatu Batuak.

### Nolakoa da jatekoa?

Negargarria. McDonalds eta Burger King ez dut ezta zapaldu ere egin; jatetxetara joaten saiatu izan naiz. Hala ere, ia ezinezkoa da "eguneko menu" bat edo arrain freskoa duen menu bat topatzea edo tomate saltsa bertan prestatzen duen jatetxe bat aurkitzea. Azkenean, bakoitzak berea sukaldatu behar, fundamentuzko zerbaiteko bada.

### Zer moduzkoa da unibertsitatea?

Ameriketako unibertsitateak harrigarriak dira. Ditutzen baliabideak ezin daitezke hemengoekin konparatu. Ikerkuntzari ematen dioten balioa,







nuen, eta geroztik, pixka bat *celebrity* gisa hartu naute txinatarren artean, eta ezizena jarri didate: *The Spanish Dragon*. Kar, kar, kar. **Zer bait esateko gogoz geratu zara?**

DBHn eta Batxillerrean ikasten dihardutenak gogor ikastera animatu nahi nituzke horrelako esperientziak bizitzeko. Gogoz jarduten denarentzako beti egongo da aukera eta bekaren bat. AEBetako unibertsitateetan badira ikasleak Txinatik etorriak, Indiatik etorriak, Hegoamerikatik etorriak... eta Espainiatik etorritakoak, ordea, oso gutxi. Gu ez gara inor baino tontoagoak, beraz konplexu guztiak kendu, eta aurrera! Ez zarete damutuko! Norbaitek bekekin edo curriculumarekin laguntzarik beharoko balu, pozik lagunduko nioke. Idatzi nire helbidera: [iglesiasinaki@gmail.com](mailto:iglesiasinaki@gmail.com). Animatu!

irakasleen soldata, kirolak duen garrantzia, mundu guztiko herrialdeetatik etorritako ikasleak, campus zoragarriak... Benetan esperientzia baliogarria da; edonori gomendatzeko modukoa.

**Esperientzia honek eman dizun sorpresarik handiena?**

Nere gidoian idatzita ez neukan zer bait komunitate latinoamerikarrarekin topatzea izan da. Ez nuen espero hain kultur panorama aberatsa eta anitza topatzea. Herrialde bakoitzak dituen sustraiak, ohiturak, nor-tasuna... egundoko sorpresa iruditu zait. Eta eurekin hizkuntza konpartitzeak ate guztiak zabaldu dizkit. Hain zuzen ere, etxera itzuli baino lehen, hiru aste pasako ditut Uruguayen lagun bat bisitatzen.

**Kontatuiguzu anekdotaren bat.**

Anekdota handiena agian nire saileko txinatarrena izango da. Dutxan kantatu zalea naizela jakinda, urtero-urtero antolatzen duten Karaoke txapelketa txinatarrean parte hartzera animatu ninduten kantu txinatar bat ikasiaraziz. Hamabost txinatarrek eta nik hartu genuen parte. Hogei txinatarrek osatzen zuten epaimahaia eta 200 txinatar inguruk entzun gintuzten. Txinatarrez kantuan hasi nintzenean (txuletari begira) egundoko txalo zaparradak jaso nituen, eta kantua nahiko abertzalea zenez, zeharo berotu ziren haien bihotzak. Entzuleen saria irabazi



PREST

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



# ATE IREKIAK

- Goi Eskola Politeknikoa**
- Arrasate OTSAILAK 4** larunbata, 10:30
- Enpresagintza Fakultatea**
- Oñati OTSAILAK 18** larunbata, 11:00
- Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**
- Eskoriatza OTSAILAK 2** osteguna, 18:00
- Gastronomia Zientzien Fakultatea**
- Donostia OTSAILAK 16** osteguna, 18:00



**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **630 372 882**
- Emakumea lan bila. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan arituko nintzateke, interna edo ordukat. ☎ **633 150 376**
- Emakumeak interna edo orduka egingo luke lana. Esperientzia eta erreferentzia onak. ☎ **650 152 866**
- Zerbitzari moduan lan egingo nuke; esperientzia daukat. ☎ **659 030 193**
- Etxeko lanak eta garbiketak egiten lan egingo nuke. ☎ **618 058 757**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **638 527 489**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Goizez. ☎ **635 313 375**
- Emakumea lanerako prest. Umeak zein edadetuak zaintzeko edo gau solteak ospitalean pasatzeko prest. Egun erdiz. Garbiketa lanak ere egiten ditut. ☎ **618 052 967**
- Haurrak zein nagusiak zainduz lan egingo nuke, orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut. ☎ **676 858 210 / 943 257 217**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut, etxetik. ☎ **943 744 062**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **638 338 816**

- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Euskalduna. ☎ **626 490 986**
- Nagusiak zainduko nituzke. Euskalduna naiz. Urte askotako esperientzia daukat. ☎ **685 729 790**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen esperientzia handia daukat. ☎ **680 808 125**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **638 527 489**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Asteazkenean. ☎ **669 311 385 / 683 554 245**
- Ingelesko klaseak ematen dira. Eskolako laguntza eta titulazio ofizialak lortzeko klaseak. Adin guztiak. ☎ **652 763 264**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ **638 338 816**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. Paperak ditut. ☎ **669 311 385 / 626 263 251**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 925 929**
- LH, DBH eta Batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna. ☎ **645 557 191**
- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna. ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari... ☎ **609 148 861**

- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**

**ESKAITZA**

- Sukalde laguntzaile behar da Mendaroko taberna batean lan egiteko. Goizez deitu. ☎ **943 030 150**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA**

- Etxea alokatzen dut Santa Klara auzoan. 5. pisuan, 2 logela, eguzkitsua, igogailuarekin eta altzariekin. ☎ **645 048 110**
- Hiru pertsonako familiarentzako etxea alokatuko genuke. ☎ **618 058 757**
- Pisua behar dut alokairuan Elgoibarren. ☎ **620 664 454**
- Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **635 313 375**
- Emakumeak pisua hartuko luke alokairuan. Hiru logelakoa ☎ **699 813 826**

**BESTELAKOAK**

- Erloju bat aurkitu dut. ☎ **943 742 168**
- Gazte Asanbladak sukaldarako altzariak behar ditu. ☎ **677 898 633**

I. URTEURRENA

**ARANTZA URIGUEN ARAMBURU**

2011ko urtarrilaren 25ean hil zen, 72 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 28, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretanoi eskerrak aldeztatik.



ESKERTZA

**JOSE MARIA ARRIZABALAGA URIARTE**

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.*

2012ko urtarrilaren 4an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







• Zorionak, **Onar**, zure lehenengo urtebetetzeari. Zure gurasoen, eta bereziki Iruneren partez.



• Zorionak, **Egoi**. Ondo pasatu eta patxo potolo bat etxekoan eta bereziki Gariren partez.



• Zorionak, **Ane**, hilarren 28an 12 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, familiakoan partez.



• Zorionak, **Urko**, urtarilaren 27an 11 urte egingo dituzulako. Zure arreba Izaroren, gurasoen eta familiako guztien partez.



• Zorionak, **Garazi**, urtea bete zenuelako. Etxekoan eta bereziki ahizpa Maddi eta lehengusu Beñaten eta Denixen partez.



• Zorionak, **Pitxitxi**. Astelehenean 10 urte potolo beteko dituzulako. Laztan goxo bat.



• Zorionak, **Lander**. Ur-tarrilaren 25ean 2 urte-txo egin zenituelako. Etxekoan partez, eta bereziki aititza eta amamaren partez.



• Zorionak, **Markel**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat gurasoen eta arreba Maialenen partez.



• Zorionak, **Julen**, astelehenean 9 urte beteko dituzulako. Muxu asko, etxeko guztien partez.




• Zorionak, **Beñat**, astelehenean 5 urte egingo dituzulako. Ondo pasa eta muxu handi bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Ian**, zure lehenengo urtebetetzeari. Muxu handi bat familiakoan eta, bereziki, Klara eta Telmoren partez.



• Zorionak, **Erika**, zure seigarren urtebetetzeari. Muxu handi bat gurasoen eta ahizpa Maddiren partez.



• Zorionak, **Sara**, zure hirugarren urtebetetzeari. Asko maite zaitugu. Familiako guztien partez.



• Zorionak **Ion Maiztegi**, bere urtebetetzeari. Zortzi muxu potolo, etxekoan partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Elur eta Uxue**, 4 urte bete dituzuelako. Jon, Asier, Garazi, Olatz, Aitor, amona Ankor eta familiako gainerako guztien partez.

**AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU**  
Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hiruakitza 8€.  
hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

**ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK**  
Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hiruakitza: 7€.  
hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.



## Txandakako IMH Ingeniaritza Eskolan

### GRADU BERRIA:

**“Prozesu eta Produktu Berrikuntzaren Ingeniaritza”**  
(egiaztapenaren zain)

Lanbide heziketa industrialak ikasi ondoren egiteko aproposa: ikasi eta lan, zure txanda!





## ATE IREKIAK: Otsailak 4, 11:00etan *(deitu aurretik)*

**IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 [imh@imh.es](mailto:imh@imh.es) - [www.imh.es](http://www.imh.es)**

## 27 barixakua

### *San Juan Bosko*

19:00-5:00 San Juan Bosko jaia  
Gaztetxean, batxilergoko ikasleek  
antolatuta.

## 28 zapatua

### *Ikastolaren 50. urteurrena*

10:00 Lehen Hezkuntzako ikasleentzako  
olinpiadak Ikastolan.

## 29 domeka

### *Mendi irteera*

10:00 Besaide mendira irteera, ikastolako  
gurasoek antolatuta.

## 30 astelehena

### *Artea*

17:00 *La luz y el color* arte tailerra Kultur  
Etxeko hitzaldi gelan, Haizeak antolatuta.

### *Hezkuntza*

19:00 Gurasoentzako matrikulazioaren  
inguruko bilera informatiboa ikastolan.

## 31 martitzena

### *Literatura*

18:00 *La regenta: Ana Ozores y sus  
amantes* literatur tailerra liburutegian  
Haizeak antolatuta.

### *Santa Eskea*

20:00 Etxegina taldearen Santa Eskeko  
entsegua Kultur Etxeko sotoan.

## 2 eguena

### *Musika*

20:00 Adsax saxofoi laukotearen musika  
Klasikoaren kontzertua Gaztetxean.

### *Hezkuntza*

18:30 Gurasoentzako matrikulazioaren  
inguruko bilera informatiboa Institutuan.

### *Santa Eskea*

20:00 Etxegina taldearen santa eskeko  
entsegua Kultur Etxeko sotoan.

## 3 barixakua

### *Santa Eskea*

15:30 Ikastolako ikasle eta irakasleen santa  
eske kalejira, ikastolan hasita.

## ZINEA

### «Jane Eyre»

27, barixakua: 22:15  
28, zapatua: 19:00/22:15  
29, domeka: 19:00  
30, astelehena: 21:30

### «La gran aventura de Winter el delfín»

29, domeka: 16:30

### «Nader y Simin, una separación»

Ongarri zinekluba  
2, eguena: 21:30

### OKINDEGIA

29 domeka EIZAGIRRE

### BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

#### Egunez

9:00 - 22:00

27 Etxeberria  
28 Fernandez  
29 Fernandez  
30 Yudego  
31 Zabaleta  
1 Barrenetxea  
2 Ibañez

#### Gauetz

22:00 - 9:00

Etxeberria  
Garitaonandia  
Garitaonandia  
Yudego  
Etxeberria  
Barrenetxea  
Yudego

### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

### ESKERTZA

## FLORENCIO ALONSO BISBAL

2012ko urtarrilaren 25ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







# OSASUN GIDA



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

### *Kemen Belardenda.*

*Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.*

Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach loreak, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak eta familia konstelazio tailerrak. Herbodietetikan eta fitoterapien aholkularitza, makrobiotika eta P.N.L. kontsultak, ordua aurrez hartuta. Berial

- Triunidad esentziak.

- Astero, barazki biologiko otarrak.

San Bartolome, 29

Tel: 943 744 031

Egunero: 9:00-13:00

16:30-20:00

### *Sanatana Dharma*

*Yoga Elkarte*

Anginei aurre egiteko masajea.

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (ldoia)

685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30

*Mendaron* astelehen eta aste-

azkenetan: 15:00-16:30

## ORTOPEDIKAK

### *Itziar Sarasketa*

San Frantzisko, 12

Tel: 943 74 35 62

Egunero:

9:30-13:00 / 17:00-20:00

## MASAJISTAK

### *Victoria Iraegi*

(Esku-terapiak: kiropraxia, dronatzaille linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).

San Frantzisko kalea, 40

(atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera:

8:00 / 14:00

## PODOLOGOAK

### *Oinberri*

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

### *Iñigo Arrillaga Yudego*

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriera egindako plantilak.

- Hanka diabetikoaren

zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko, 20 behe

Tel: 943 741 645

Ordutegia:

9:30-13:30 / 15:30-19:30

## FISIOTERAPIA

### *Ainhua Fisioterapia*

Jausoro, 6 behe.

Fisioterapia eta osteopatia.

Tel.: 943 531 953

669 565 745

### *C.R.F. erreabilitazio zentroa*

(Partikularrei eta seguruen bidezko tratamenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.

San Inazio, 2

Tel.: 943 743 374

Astelehenetik ostiralera:

8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

### *Fisioterapia eta kirol berregokitze zerbitzu berria (JAVI MUÑOZ)*

- Esku-terapia

- Terapia miofasziala

- Puntzio lehorra

- E.P.I.

- Esku drainatze linfatikoa

- Fisioterapia haurdunaldian

- Kinesiotaping

- Kirol berregokitzea

- Osasunerako ariketa agindua

Aupa Zen

Medikuntza-Estetika zentroa

Jausoro plaza, 1 behe

(Udaletxeko zubitik gertu!)

Tel.: 943 743 440

### *Ikus optiko-optometrista*

San Bartolome, 10

Tel: 943 743 734

Egunero:

9:30-13:00 / 16:30-20:00

### *Uzuri*

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Tel: 943 740 359

Egunero:

9:30-13:00 / 16:30-20:00

## HORTZ KLINIKAK

### *Irale*

Errosario Kalea, 7 behe

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 177 134

[irale@irale.com](mailto:irale@irale.com)

[www.irale.com](http://www.irale.com)

### *Leku eder*

- Diagnostiko digitala

- Estetika

- Kirurgia eta inplanteak

- Ortodontzia: haurrak eta

helduak

- Protesiak: finkoak eta

eraginak

- Odontologia orokorra

- Higienea eta prebentzioa

- Periodontzia (entzien

tratamendua)

- Harrentzako tratamenduak

- PADI

Elena Herrero Lobo medikua

Aita Agirre enparantza,

5 behe.

Tel: 943 530 053

[lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

### *Beitia Arriola*

- Odontologia orokorra eta

ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta

telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behe

Tel: 943 531 869



## OPTIKAK



Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



Elgoibarko Herri Eskolako Ate Ireki eguna: **Otsailak 4**  
 Elgoibar Arreiture BHIko gurasoentzako bilera irekia  
**otsailaren 2an, 18:30ean Arreituren**

**AURREMATRIKULAZIOA**  
 2012 - 2013

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza  
**URTARRILAREN 30etik OTSAILAREN 10era**



**Elgoibarko Herri Eskola**

Kalamua, 8

Tel.: 943 74 08 79

E-posta: [012777aa@hezuntza.net](mailto:012777aa@hezuntza.net)



**baikara**

0213389318/818181  
Guzuzen: 148/148/148



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA  
UMIBERTSITATE eta  
IKERKETEA SAULIA

**Elgoibar Arreiture BHI**

San Roke, 11

Tel.: 943 748 397

E-posta: [www.elgoibardhi.net](http://www.elgoibardhi.net)